



Jose Ramon Isasa ■■■ Tirri-Tarra fanfarreko kidea

«Gure emanaldien %90 ikuskizunak dira»

Pasal San Pedroko Tirri-Tarra fanfarreak 25 urte beteko ditu aurten • Urtemuga ospatzeko, besteak beste, diskoa kaleratuko dute

HORREZ gain, beren lokal berriaren konponketan buru-belarri murgilduta daude. Udako agenda beteta dute, *Tirri-Tarra show* eta *Kass&Kass* ikuskizunak eskainiko baitituzte hainbat lekutan.

■ **Nolaz erabaki zenuten fanfarre hutsa izateatik ikuskizun lenduagoak egitera pasatzea?**

Tirri-Tarrak fanfarren arteko hainbat lehiaketetan parte hartu du urte askotan. Lehiaketetan hainbat froga pasatu behar genituen gure maila erakusteko; horien artean zeuden umore eta koreografia froga. Taldeak gero eta garrantzia handiago eman zien froga horiei, eta lehiaketetara nahiko landuta eramaten genituen, ondo presatuta.

Urtez urte probetarako ikuskizunak garatuz joan ginen, eta azken lanak benetan dotoreak ziren. Orduan pentsatu genuen oso gauza berria zela fanfarre bat antzerkia, musika eta dantza nahasten dituen ikuskizun bat egiten ikustea. Horrela, lehiaketetan erabilitako *sketch* onenen bilduma egin genuen eta *Tirri-Tarra show* ikuskizuna sortu zen. 1996an sortu zela esan daiteke, nahiz eta horietako *sketch* batzuk lehenagoak izan.

■ **Tirri-Tarra show-k izan zuen arrakastaren ondoren Kass&Kass ikuskizuna estreinetu zenuten. Zer ezberdintasun dago bien artean?**

Lehen esan bezala, *Tirri-Tarra show* 1996ko ekainean estreinatu genuen, baina uda hartan ez genuen emanaldi gehiegirik egin, besteak beste Bosnia-Herzegovinan izan baitziren. 1997 eta 1998 urteetan ikuskizunek sekulako arrakasta izan zuten, hasieran *Tirri-Tarra Show*-k eta

Kass&Kass-ek gero. *Kass&Kass* 1997an sortu zen, eta esan daiteke ikuskizun moduan antzerkitik oso hurbil dagoela.

■ **Fanfarre klasiko gisa aritzen al zarete?**

Guk ez dugu kalejira alde batera utzi nahi, baina ikuskizunek izan duten arrakasta ikusita, hori egin behar izan dugu. Beno, esan daiteke

denborak utzi duela kalejira bazter batera. Gaur egun fanfarreak egiten dituen emanaldien %90 ikuskizunak dira, bai *Tirri-Tarra Show* bai *Kass&Kass*.

■ **Non aritzen zarete gehiago, Euskal Herrian edo Euskal Herriatik kanpo?**

Fanfarreak, ikuskizunak estreinatu baino lehenago, emanaldi gutxi egiten zituen Euskal Herrian kalejira moduan. Atzerrian emanaldi gehiago egiten genituen, eta

atzerriko emanaldiak ziren gure sustengu ekonomikoa. Baina *Tirri-Tarra Show*-rekin eta orain *Kass&Kass*-ekin Euskal Herriko merkatua berreskuratu dugu nolabait. Horrela, azken bi urtetan Euskal Herrian zehar ibili gara batez ere.

Gero, kanpora begira, beste

emanaldi batzuk ere eskaini ditugu. Esate baterako, iazko irailean Tarregako Nazioarteko Antzerki Ferian izan ginen, Katalunian. Agian jendearentzat ez da feria oso ezaguna, baina diotenez Mendebaldeko Europar egiten den kale antzerkiari buruzko feriarik garrantzitsuena da. Azken hiruzpalau urteetan Eusko Jaurlaritzak Euskal Antzerkia deituriko egitasmoa bidali du Tarregara. Euskal Herriatik sei talde joan ginen, *Tirri-Tarra* horien artean. Egia esan, ez da oso ohikoa fanfarre bat antzerki feria batean ikustea. Orain egin behar duguna da Euskal Herrian hainbesteko arrakasta izan duten ikuskizunak Estatura zabaltzea eta, zergatik ez, baita atzerriara ere.

■ **Atzerrian zela lekutan egon zarete?**

Beno, ikuskizunekin oraindik ez gara kanpora atera; baina lehen, kalejira moduan ibiltzen ginenean, Bosniatik ekialdera, Hungaria eta Txekiatik Dinamarkara arteko herrialde guztietan izan da *Tirri-Tarra* fanfarrea. Udan Dinamarkan emanaldi bat genuela aprobetxatuta, bira bat antolatu genuen Europar zehar.

1996an Bosniara joan ginen, SOS Balkanesen kanpaina baten barruan. Zenbait musika tresna eramane genituen bertako Malalai herrira. Beraz, fanfarrea Europar

■ **Diskoa erronka berri bat da Tirri-Tarrarentzat. Berria eta orjinala izango da»**

ibilitakoa da, baina kalejira moduan. Aurrerantzean ikuskizunak eramane nahi ditugu Europara.

■ **Nolakoa da zuen sormen prozesua, zertan oinarritzen zarete show-ak egiteko?**

Sketch-ak egiteko kanpoko laguntza ere izan dugu. Beno,

■■■ Tirri-Tarrak ez du baztertu ohiko fanfarre moduan aritzea, baina ikuskizunekin lan egiten dute batez ere.



EDURNE KOCH

■ **1996an Bosnian izan ginen. Musika tresnak eramane genituen bertako Maleial herrira»**

BERRIA!
jai tropikala

Urkijo zumardia, 34 - 4.E
48011 BILBO-BIZKAIA

ZURINE
ARTE-EKOIZPENA
CLARA SALAZAR BRACERAS

Tel.: 944 448 706 - 944 443 617
Mug.: 609 088 568 faxa: 944 443 617

LIZARRALDE SOINVA
TXALAPARTA, S.L.
SONORIZAZIOAK
MEGAFONIA ZERBITZUAK
☎/Faxa: 945 22 69 77
GASTEIZ